

# Haragizko amoreak

OMAR NABARRO

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2010 Omar Nabarro

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2010eko martxoa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Polborea baño prestago  
erexegiten da aragizko amorea

P.A. AÑIBARRO

1803

---

# ALDARRI EGITEN DU HARAGIAK

Txibien sasoia da itsaspean.  
Arrantzale zaharrak ba, isilean  
artatsu atontzen du batela,  
goizak guztiz argitu orduko  
eme bizien bila abiatzeko.  
Lehorrean ondurik dira sagarrak.

Ekia bere goia jotzekotan dela  
arrantzaleak portura egiten du;  
txibia emeak, hegalean haria josita,  
uretan preso bizirik uzten ditu  
txibia arrak bila etor dakizkien.  
Gereziak ere ondurik dira lehorrean.

Odolek min ematen dute zainetan  
eta labarren ertzean suak piztuko dira  
basapikondoak ere kez laztantzeko.  
Okaranen azala zimeltzen hasita  
hordituko dira begiak txakolinaren  
iluntzeko dirdiraz, ezpainak ere ondurik.

Biharamunean arrantzalea goiz jagiko da  
salabardoa harturik txibia emeen deira  
inguratu diren txibia arren bila.  
Lehorrean suaren hondarrak artean bero,  
madariak ere ondurik direla esango didazu  
leihoaz bestaldeko baratzeari begira biluzik.

Igaroko zaie txibia emeei sasoia,  
ez zaie berriro arrik inguratuko  
eta arrantzaleak karnatarako zatituko ditu azkenak.  
Sagarrak behera jausiko dira madariak lez  
eta aramuek lan isilen nazioa josten segituko dute  
masustak oraindino ondurik ez badira ere.

Txibien sasoia da ba orain itsaspean.  
Lehorrean ondurik dira sagarrak,  
bidegabekeriak aurrera egiten du  
eta hitza mailu ezin bihurturik minez  
aldarri egiten du haragiak  
bizitza bera den zauriaz  
zauriturik gozatzeko.

# **SAGAR ERREA**

Zer ete da andra erdiaren zauria?  
Sagar errea, eta ardoa gorria.

ANONIMOA

XV. mendea

---

# JOAN LIBRE

Jausi da ba, tak! sagarra  
eta ez da ez, hil, eguzkia;  
odoletan hor, bedarra,  
gorri;  
gorriago guk haragia.

Goza orain, zoro-zuhur,  
lau ezpainak heze, bustita;  
bihar gara geu ere lur,  
ustel;  
sagarra lez, hara jausita.

Ez da betiko arratsa,  
ezta ere sagar-azala;  
ez dakigun erre hatsa,  
arren;  
joan libre, hegan bezala.





---

# LEPOAREN GEOGRAFIA

Lepoaren geografiaren misterioak,  
sujetadoreak  
beste aldean dagoenaren seinalearena egiten du:  
haragialde miragarrien promesa, mapa eta bidea da  
(baldin eta lepoa bera baino  
haragialde miragarriagorik bada;  
aldarrika bezate pulpitueta:  
Neu naiz bidea, Neu mapa eta promesa).  
Eta lurralde promestura iristea berantetsi  
behar izaten delako  
zinez eskergarri zait  
tiranteen geometria doia  
eta bidean aurrera  
hortxe izatea kakoren bat  
eta hala eta ere hori tarte batez behintzat  
askatu barik uztea  
zer esanik ez uhal meheen sarea sarria bada  
eta horretan luzatu ahal badira hatzak  
gerrarik barik laztanez lekuz aldarazteko  
lepoaren geografian diren nazioen muga-marrak  
(Oi lepoan diren nazioak!: Garondoa, Sorbaldak,

Lepagainak, Ilargi Hordien Harana  
—bere sei gehi hamabi Ornoen tribuekin—  
eta oraino izenik eman ez zaien besteak:  
haragi mardoen arteko sakana,  
urrezko inurrien habia diren hezurtxoak,  
kili-kilien azken ezkutalekuak).  
Utzidazu ba mapa begiratzeko  
mugak apeta hutsez aldarazten  
horko bideetan zabal ibiltzen  
promesa den beste aldera iristea berantesten.

---

# DEBEKUA

Ahantz dezagun ba  
sagarraren debekua,  
utzi egidazu askatzen  
gereziak estutzen dizkizun  
mirarizko xingola.

---

# OKARANA

Zabal nasai besoak,  
eman laztanetan  
udak ematen dakien  
den-dena:  
gereziak,  
sagarra,  
okarana.

(gereziak eta sagarra;  
esadazu non duzun  
gorderik okarana)

Utz iezadazu joaten  
lepoko Nazioetan behera,  
Ilargi Hordien  
Haranera:  
han ote usozelaia,  
eperlanda,  
akelarrea.

(usoa eta eperra;

esadazu non den  
atseginen larrea)

Emadazu lipar bateko  
heriotza ttipia,  
isurian negarrez

azken irria:  
malkoak,  
eztia,  
bizia.

(malkoak eta eztia;  
heriotza ttipietan  
joan dakigun bizia)

---

# ERREAREN OSTEA

Erakutsi egidazu sagar errearen ostea,  
emadazu ahora zauriari darion guztia;  
eman, otoi, eman azukrea eta bestea,  
eman zauriari darion ardo lodi gorria,  
lurrealde promestuko esnea eta ezta.

---

# SODOMAKO SAGARRA

Sodomako sagarra, kolore eta azala sano,  
barneko mamia hautsa eta errautsa,  
bibora leun  
iduri bistara, barnean pozoi eta beneno.

JOAKIN LIZARRAGA

1800

Egizu mihi tontorra ahotik atera  
luze hara  
eta eroan horko nire zaurira  
senti egizu zeu zarela zakila  
neu naizela orain alua  
begira zelan garen  
elkarren ispilua  
sentiarazi egidazu zelan egiten duen  
ispiluetan munduak dardara

---

# GAU ERDIAN

Guztien artean hi, Ignatius,  
zeltiberiar untxien artean jaioa,  
beste edertasunik ez duana  
bizar latza eta gernuz  
garbitutako hortzak baino.

CATULO

**N**ahi nuke nik  
gau erdian t'oraindino hordi  
puxika larri  
biok itzarri  
komunera jagi  
gernu beroaren urre iturrian  
eskuetako bat gozoro busti  
besteaz ezpainak zabal ireki  
ahora isuri  
adatsean ere  
arrastoa utzi  
gero  
iberiar zaharren lege berean  
etzatera biok errugabe itzuli



---

# ATSEGINARI

Oilarraren deiadarra gorri  
berak egin gaitu  
ordua baino lehen iratzarri

lot gaitezen berriro elkarri  
atseginari deituz  
goizari eginez alai aldarri

---

# GOIZEKO SAGARRA

Edukak geldirik porrua  
eta jan egik sagar heldua

ANONIMOA

1619

Neuk gura zintuzket, ene puta laztana,  
goizean goiz, kafea hartzen duzun artean  
astiro jantzi.

Neuk jantziko zintuzket, ene puta  
zikin kuttuna, oinetan gora abiatuta  
astiro

eta gora eta gorago,  
ero,

hasperen batean esango zenuke  
Kabroia, kabroi hori,  
Astiroago!, edo  
Orain ez, gero!

eta, Orain ez, gero!

gerria estutuko nizuke,  
eta sorbaldan estu lokailua lotu  
edo,  
ene ezpainak iheslari,  
zeureak dardarka bilatu, ene puta,  
ene puta laztana,  
ene puta zikin kuttuna.

Eta berandu egitea bilatu barik  
laztan ostuetan astiro-astiro  
halaxe galduko ginateke;  
garondoan darizun larruaren lur-  
lurruna usainduz,  
zure adats oraindino bustia  
zintzurraz laztanduz,  
gereziak janez, zukuak bilatuz.

Eta sagarretik berriro  
hartzekotan ja  
eta kafea  
hartu barik ia  
mahai gainean utzita  
zu zeu jantziko zinateke  
presaz

eta leun esanen zenidake:

Orain ez, gero, gero;

edo, Kabroi hori, astiro!

ene puta laztana, ene puta

kuttuna.

---

# MAILUKIAK

Leihoko goiz argia testigu

mailukiak edurrean lez  
odol arrastoak izaretan  
izarak zuriak direnetan

izarak azulak direnetan  
odol arrastoak izaretan  
mailukiak itsasoan lez

Leihoko goiz argia testigu

# **METALEZKO SAGARRA**

---

# AUTOAK ILARAN (1)

**A**utoak ilaran geldiro  
han ertzean txatarra zatiak:  
odolbildua gaur A-8 zain lodian.

Zigarroa isiotuta  
telefono mezua:  
zirkulazio arazoak bidean.

Goiz-albako ortzi errea  
lanerako gogo eza:  
istripuko kea ere ketan da.

---

# SAGAR ZATITUA

**B**idaztiek lainotzat duten ke gorri  
horren azpian hiri zatitu bat da  
zeinean umeen begiak  
ilinti goriz zulatzera datorren egun-argia.

Ibai uherrak erdi-erdian zauri  
egiten dion garunalde eskizoidea,  
letania labur bateko lau-bost zubiz  
josten zaio eskuinari ezker aldea.

Garabi akituen hilerri  
inguma ilunen eremu,  
tigreen jungla harrizkoa,  
metalezko sagar arima bakoa!  
Zurean historak errotarri dihardu  
eta bizi-hautsa ehoz doa.



---

# SABAKO ERREGINA

Zure urratsak zeinen diren ederrak,  
errege alaba, zure oinetakoetan! (...)

Zure begiek iduri dute Hexbongo arraintegiak,  
oste-alabaren atean direnak.

*Kantiketako kantika*

itzul: Jean Pierre Duvoisin

1859

**B**ehatz azalak more, oinak agirian,  
orkatiletan perlak, soin luzean praka  
zuri harizkoak eta likrazko jaka,  
Sabako erregina autobusaren zain.

Ilea leporaino luze, farfailak gingiletan,  
mp3a edo 4a belarrietan joka  
dance, house, reggae, indie, ala chill-outa?  
Sabako erregina lanera bidean.

Apaletan aukeran prezio merkean  
espezieak, tea, perfume usainak;  
doan haren irriak, zein eder ezpainak,  
Sabako erregina super merkatuan.

Kutxako ilaran ni, eta beste aldean  
bera, uniformean izena ageri da,  
oker ez banago, Anny G. Makeda:  
Sabako erregina, kajera lanean.

Beste esklabo bat ba, esklabo katean,  
begiz laztantzen dut goizean bezala  
eguna amaituta berriz dagoela  
Sabako erregina, autobusaren zain.

---

# TITANIOA

**B**ehin batean Amerikak itsutu zuen hiri honen merkatari arima, Amerikak zilarra ematen ziolako. Oi, merkatarien geografia. Zilarra: zenbaki atomikoa, 47; pisu atomikoa, 107,86. Mendeleieven taulan.

Gero berriz burdinak itsutu zuen hiri honen zilarzale arima, burdinak zilarra egiten zuelako. Oi, merkatarien alkimia. Burdina: zenbaki atomikoa, 26; pisu atomikoa, 55,80. Mendeleieven taulan.

Gaur titanioak itsutzen du hiri honen burdinazko arima, titanioak burdinarena egiten duelako, eta burdinak zilarra egin izaten zuelako, eta behin zilarrak itsutu zuen hiri honen aspaldiko merkatari arimak ezin duelako itsu egon barik bizi. Titanioa: zenbaki atomikoa, 22. Pisu atomikoa, 47,90. Mendeleieven taulan.

Oi, zenbakiz zenbaki gero eta zenbaki baxuagokoak eta pisuz pisu gero eta pisu arinagokoak diren metalek itsutzen duten hiri mutante honen arima.

Bitartean, Mendeleieven taulan ez daudenek itsutzen naute ni. Hiri mutante honen arima itsutuak ez ote ditu ikusten haragi zaurituak —zenbaki atomikoa,

0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira topatzen— gorputz zatituak —zenbaki atomikoa, 0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira ageri— ari-ma minuak —zenbaki atomikoa, 0; pisu atomikoa, 0; Mendeleieven taulan ez dira azaltzen.

Denboraz, zilarra ilundu egiten da, eta ugertu burdina. Oraindino ez dakigu titanioa ilundu egingo denentz, edo ugertu ere bai akaso. Mendeleieven taula hobeto ezagutzen dutenek jakin behar dute. Ziur.

---

# GRAN VIA AVENUE

Maniki / panpina / andrakilen buruak  
erakusleihoetan

kimioterapiaren ostean  
gutariko beste edonor  
legez

manikien buruak erakusleihoetan  
kimioterapiaren ondoko buruak  
buruak erakusleihoetako manikiek

ilerik barik, ileak galdurik  
kimioterapiaren ostean legez

—Vogue, Elle, Marie Claire,  
Man!—

metalezko sagarreko harrak  
paseoan  
eta

kimioterapiaren osteko buruak  
erakusleihoetan. Erakusleihoetan

—trilita, dinamita, kryptonita—  
manikien buruak ile barik  
kimioterapia eman zaionari legez  
—zu zeu ere

Bat-Man,

Cat-Woman,

modan zoaz-eta,

bakea—

hiritarrak paseoan erakusleihoaren

parean manikiak terapia kimikoa

jasan ostean legez —eri bizi-bizien

laztana:

izpiak, erradiazioak; metalak:

beruna, titanioa, burdina; eta

gas arinen pisua: argona, feona—

kimioterapiaren ostean ileak

galdutakoak legez

manikiak. Manikiak / panpinak /

andrakilak / kimioterapiaren osteko

buruak lakoekin:

gorputzak artez

besoak airean josita begietan

argirik ez soina jantzita modan

zein eder!

—eros, eros, eros!—

Kimioterapiaren

osteko buruak lakoak:

manikienak.

Kosmopoliko hiritarrak / metalezko  
sagar azaleko harrak / paseoan  
manikien parean. Kosmopolia  
arratsaldez. Zorion betean.

---

# GOIZEKO SAGARRA GOGOAN (1)

Eguna igaroko dugu  
orduz ordu  
    segundorik  
        segundo  
eta gero astiro  
neuk erantziko zaitut  
egin eginez orain arte  
egin ere egin  
egin izan ez bagenu bezala  
                    egundo



---

# GEHRYREN MIRARIA

Sotoan txiroak eta saguak  
bizkar gainean marinel andana  
zubian mozkorrik lo kapitaina  
hutsik burdinaren diru-zakuak.

Aspaldi itzalita kostako suak  
txatarra-biltegi portu izana  
etxe uretan be beti izaina  
eta gorrotozko aho-keruak.

Gehryk behingoan jakin egia:  
urpean zetzan gure Atlantida  
(atlanteekin han batera hilda);  
eta Bilbo zer zen: mamu-ontzia.

Eta hara orain ba, zein miraria:  
(Titanio horrek duen distira)  
iragan aroak berpiztu dira.  
Galeoiak badu lema berria.

---

# GOIZEKO SAGARRA

## GOGOAN (2)

eguerdiko otoitza Mekara begira

**N**euk ere holaxe gura zaitut, otoi,  
alfonbraren gozoan bi belaunak,  
heze ninfak, eta halako baten, oi,  
bustirik esne airekoaz ezpainak.

---

# NINFA ASKEAK

Eta Graziana Barrenetxeak, akelarreko  
erreginak,

zera dio, haren [apoaren] usaina...

Zugarramurdiko jendeei egin  
sorginkeria-auzia

Logroño, 1610eko azaroa

**H**orko aterpe itzaltsuan, kolegiotik ez hain urrun  
askeak diren Ninfek Lesbos basokoak dituzte  
beren artean saiatzen, elkarren biloetan laztanka  
bilatuz sagarraren azukre errea, gerezien azal  
gorria eta  
okarana,  
non den eurek dakiten, beste inork ez dakien  
okarana.

Halaxe ote ziren ba Graziana, larreak, landak eta  
zelaiak zeuen barreez bete, Graziana, elkarren  
besoetan jausiz eta bilatuz eta listu laztanez igurtziz  
okarana,  
errearen gorriena den haragizko okarana,  
Graziana.

---

# BILBAO MARITIME MUSEUM (1)

Mamuen ontzia zebilen trabes,  
eta aberasteko, ene Robinson!,  
aingura non larga irlaren bat, non?,  
oi! bagintez bihur guztiz ingeles.

Urre-irlaren truk, baita be frantses,  
eta zer egin, zer?, eta egon!  
Hala behin norbaitek —bai, bai, egunon—,  
Miraria zigun egin express.

Eta orain, duyuspik?, edo vulevu?,  
etxean ditugu kasik esklabuak;  
(duyuspik?, vulevu?, kontuz eskuak!)  
paperak, paperak, nondik zatoz zu?

Zeuoi esker dira argi zeruak,  
Gehry, arkitektook,  
I love, we, we love you  
(hau ez baledi Bilbo, ba Hollywood),  
zeuek zaituztegu gure aingeruak.

---

## BILBAO MARITIME MUSEUM (2)

Lepoaren ingeniariak dituen misterioak:  
gurago ditut sujetadorearen uhal  
leun koloreko mehe soka antzekoek  
haragi hezurretan itsasontzietako  
aparailuen modukoak eraikitzen dituztenean  
ze eman dezagun Museoko  
kafetegiko barran zagozela iluntzez  
basoa esku batean zigarroa bestean  
niri lepoa emanda barrari eusten  
neure begiei erakusten non dagozen belak  
non haize-oihalak galdetzen legez  
zein kresal- edo haize-esku luzatu behar dizudan  
nire ahoak zure azal uretan nabiga dezan  
erdiesteko.

Eta halako batean lepoa arteztu eta sokerako bat  
bere lekura eroaten duzularik burua itzulita  
bertako portuetara jotzerik izango ez dudan  
haragialde baten promesa erakusten didazu  
alkandoraren botoi askeek iradokia  
ezein maparen premiarik ez duena

eta bazoaz.

---

# EUSKALDUNA REVISITED

Behinolako nasa eta baporak:  
horditurik datza hemen denbora  
eta likenez laru eta berde  
bedarrentzako aho berri dira  
harrien begiak.  
Erreka alboan garabiak  
iharturik eta lerden.

Historiak berton ditu eten  
—horditurik— bere hariak:  
odol hautsetan doazen burdina haragiak  
herdoilezko gernetan ditu itsasoak edaten.  
Behinolako baporak eta nasa,  
zapatetatik hartu behar dut arnasa

ahok egin dezan heiagora —nora!—  
harrien begietara, argiaren ahora,  
lerden iharturik  
saurioen metalezko hezurduretan  
beren bakardadean gaua zaintzen duten  
garabien itzaletara.

Euskalduna,  
gure esklabo samak betirako  
suz eta burdinaz  
markatu dituzun eraztuna.

---

# EUSKALDUNA VARIATIONS (1)

Huts egin zuten arkitektoek laztana  
Garabien bakardadean nasak berak ere  
marraska egiten die inorako  
ez den bidean narras ihesi  
negarretan urtu-minez doazen itzalei  
Oi Venezia! Zein da zure izeneko  
hemengo hauts-sorginaizeek eraiki  
ohi dituzten zubien artean zein  
miraz galdetzen dut Venezia edo London  
galduriko Imperium orotako heroi ostendu  
guztiok nolatan egon ote ginen esklabo  
harrolioaren beren burdinazko sabel itzeletan  
aterpetu beharko zuten ontzi tzarrak  
eraiki bitartean. Deustu! zubi labur hori  
soldaketa elektrogenoz ditut josirik  
bihotzeko lau zuloak burdina zehatz  
ebakitzen zekiten suge mizto  
gasezko haien pozoia dudalarik  
birikietan falta larri. Oi Vene-  
zia gurea, arkitektoek egin



zuten bada huts —edo Lon-  
don!— gu denok esklabo gineneko  
goiz-sirenen adarrek zeregin bular-  
tsuetara deitzen baikintuzten baina  
huts egin zuten arkitektoek laztana  
Parabisuko ateetan garabiek  
ez dakitelako orain zelan igoarazi  
iraganeko errautsak  
goizeruetako esfera  
gorenetara

---

# GOIZEKO SAGARRA GOGOAN (3)

Ohera lotuko zaitut eta  
listu-ukenduz laztandu  
zauriaren errea  
ene esnetan ere nahastu  
errearen azukrea

---

## EUSKALDUNA VARIATIONS (2)

Likenez laru eta berde  
harri zurien begiak.  
Erreka ondoan garabia  
iharturik eta lerden.

Denborak berton ditu eten  
—horditurik— bere hariak:  
odol-hautsetan burdinazko haragiak,  
itsasoak herdoil-gernua du edaten.

Milioi erdi tonako bapora  
eta hamar mila langileren nasa:  
zapatatik hartu behar dut arnasa,  
ahoak egin dagian heiagora

harrien begietara, argiaren ahora  
—liken laru eta berde, oi!—,  
lerden iharturik datzan garabira.  
Behinolako nasa eta bapora:  
horditurik datza hemen denbora.

---

## AUTOAK ILARAN (2)

Iluntzean asfaltoko odola  
harearen azpian:  
mendebaldean da orain errea.

Auto ilarak ziztuan zoro  
inorako gogo eza:  
aspaldiko sua kea da.

Ke zaitut, maite, ke  
beso artean zaitudanean ere:  
ke, maite.

# SAGAR GORRIAK

Sagar herria da, haiek [emaztekiek] ez dute sagarra besterik jaten, sagarra besterik edaten, estakurua edozein delarik gogotsu egiten diote kosk etenaren sagar horri, gure lehen-lehenengo aitari Jainkoaren agindua urrarazi eta debekua gaindiarazi zion sagarrari. Adamen umeak gogotsu seduzitzen dituzten Eva halako batzuk dira, eta burua biluzik bizi dira, mendien artean erabateko askatasun eta lañotasunez Eva munduko Paradisuan legez.

PIERRE DE LANCRE

1613

---

# DENA DA HARAGIA

Haragia dira ileak,  
haragi atzazalak;  
haragia oinak,  
haragi zapatak.  
Haragia dira ezpainak,  
haragi hezurak;  
haragia begiak,  
haragi tatuaiak.  
Haragia dira hatzak,  
haragi arnasa;  
haragia musua,  
haragi maskarak.  
Haragia dira zainak  
haragi hortz-haginak;  
haragia odola,  
haragi uhalak.  
Haragia dira larruak,  
haragi ipurdia;  
haragia listua,  
haragi eraztunak.

Haragia dira titiak,  
haragi laztanak;  
haragia zartadak,  
haragi latexa.

Haragia dira malkoak,  
haragi izerdia;  
haragi oiaineak,  
haragi isuria.

Dena da haragia,  
baita  
haragia bera ere.

---

# KRESAL HAIZEA

A.ri

Gurean laranjak, limoiak eurak ere, guztiz ondu barik eta berandu datoz. Hala da ze, egoten utzi behar zaie, zabal-zabalduta egoten. Hogeiren bat egunean. Orduan, azala zimeldurik ageri arren, barruz, mamiz, eztia baino erleen zerago bihurturik, hatzak ere jateko moduan izaten dira. Gurean behintzat.

Halaxe diostazu, zeure ezpainetara begira nauzun artean, eta horretan zein metafora dagoen geratzen naiz.

Eta azkenean urteek gozatu dizuten ezpainotan laranjak eta limoiak —goikoan laranjak, behekoan limoiak, txandaka— kresalaren altzoan etorri diren laranjak eta limoiak dituzula pentsatzen dut. Metaforarik gabe.

Kresal haizearen altzokoa baitzara.



---

# WONDERBRA

Wonderbra / arbola adarrean dago xoxoa  
Kalte barik igaro du negua / wonderbra  
Hain dago lodi hain dago baltz eta pottolo  
Ekartzen dit gogora zure sujetadorea / wonderbra  
Hain dago lodi hain dago pottolo xoxoa  
Noiz egingo dugu lo elkarregaz lo / wonderbra  
Jo eta gero elkarregaz lo arbola adarrean  
Xoxoa pottolo lo elkarregaz maitea jo eta gero  
Ze ondo egin dion neguak xoxoari / wonderbra  
Hain dago baltz eta pottolo, baltz eta pottolo

Ala ez ote dago hori be / wonderbra / zure titiak  
legez

Barrua txiki eta lumak eder ai ene barruak txiki  
Eta lumak eder ai ene baina zoragarri / wonderbra

(Ze gogoko izaten nuen zure sujetadore baltza  
Wonderbra / Metaforarik barik  
Xoxoa adarrean legez ene  
Zure titi txikiak mailukiak / wonderbra)

Je t'aime no pasarán / wonderbra / arbola adarrean  
xoxoa

Behar zaitut lurrak behar duen legez euria /  
wonderbra

Maitea

---

# TRAIZIO EGITEN EZ BADIT

Andra Mariren batena izena

—Bego, Esti, Itziar, Iratxe,

ez dut argiegi gogoan—.

Iragan loriatsuen halako lurrin bat zerion

abizenari —hori gogoan badut ere

hobe hemen ez aipatzea—,

sortetxeak Ameriketako larre zabaletan

oihan sarrietan ibai lodi laster handietan

armarria ei zuela-eta irabazia.

Halaxe ba ohean etzatekotan bera

kriskitin egin zuten lepoan zeramatzan

gurutzeek eta lauburuek

haren barreen mende dantzan;

Doradoko urrezkoak ziruditen

belarrikoak erakutsi zizkidan, baita ere

Maiek edo, Aztekek edo, holakoren batzuek

—ez naiz Arte Prekolonbinoan aditua—

jantzi ohi zituztenen taxuko eskuturrekoak;

hatz gehienetan eraztunak eta zigiluak,

oinetako batean zilarrezko katea zerabilen eta  
narrastiren baten tatuaiatxoak zeukan  
besteko orkatilaren inguruan  
—ez ditut muskerrak eta sugandilak bereizten—.

Gero, edo ez hain gero,  
bilokak non diren ikatzezkoak  
eta ikatza hatz mamiez ukitzean  
ileguri —blue velvet—  
zelan bilakatzen den irakatsi zidan;  
endelegatu nuen haren abizenaren iragana, bai,  
Manilako galeoikoak ziruditen espezieak zein  
Karibekoen pareko fruituak aske eta  
ondo bustirik dasta nitzan  
eskaini baitzizkidan.

Haren arbasoen Amazoniako mirarizkoak gogoan,  
nahiago nukeen anakonda bilakatu izan banintz  
—ez larrutarako, haren gorputza metalekin eta  
denarekin osorik irensteko baino—.  
Zirauna besterik ez nuen baina  
—eta bera ez harentzat lain beharbada—.  
Bada, emearen indarrak-edo erakarri zituen  
izakitxo haiek ohearen abarora

—satorrak, inurriak, urubiak, kirikinoak,  
nik dakit ba zein ez—  
lurralde urrunetako jangarren eta isurien  
ederraz ni neu legez mira eginik guztiak.

Agurrean huntzorria utzi zidan ezpainetan antza  
ahoa inurritz bete zitzaidan-eta,  
satorrak berriz betazpian geratu zitzaizkidan  
—bietan bina—  
gauero ager daitezen bizirik irauteko behar duten  
argi ñimiñoa haren begietan bilatzera  
inoiz holakorik ez topatzeko bada ere  
—ez gara elkarrenera berriro itzuli,  
eta pospoloak pizten dizkiet betzuloetan ditudan  
urubiek u eta u egiten dutelarik—.  
Belarriak zerez bete zizkidan ez badakit ere,  
eztitasunezko kili-kiliak aditzen segitzen dut.

Utzi zidan espezien usain iraungi  
ezinezkoarekin batera  
kirikinoak dira orain problema  
(kasik negarrez diot hau)  
ez didate-eta bihotzean  
—hortxe bizi dira, bai—

Mariren habekoa zela esango nukeen,  
baita lepoa egingo ere,  
Anboto mendiko babespean izan balitz  
—zein beste mendi mitologiazkorik dugu, ba?—  
eta ziraunarekin josta ibili zenetako batean  
behatzak banan-banan ahoan hartu ez banizkio.  
Ahate oinak bereizten badakit-eta.

(Honetan oroimenak traizio egiten ez badit  
Zazpi Kaleetan izan zen, udazkenez.)

---

# HATOR ENE ALBORA

Hator ene albora, Lidia, erreka ertzean  
jesartzera.

Soseguz begira diezaiogun haren igaroari eta  
ikas dezagun  
bizitza nola badoan, eta ez gauden elkarri eskua  
hartuta.

RICARDO REIS  
1914

**H**ator ba, Lidia, ene albora  
etzan hadi zabal eta esadan  
nahi ote dunan  
errepasa dezagun  
gure espeziearen Historia Naturala.

Haginka nazan besoetan  
lepoko zainetan  
arrain ere izan ginela gogoan  
haginka nazan xorrotx  
busti nazan eta jan.

Akorda gaitezen gorputz berean  
ar eta eme ez ote ginen izan  
egidan titiburuetan laztan eta esan  
dardara hau ez al den  
espeziea bezain antzestrala.

Senti ezan narrasti izan gineneko  
kilika hotza ornoetan behera  
senti haien isatsa dugula guk ments  
egin hortxe ba mun eta pa  
eta segi ezan aurrera.

Erakutsiezazkidan oinak  
utzi ezpainetan hartzen behatzak  
eta alda gaitezen Historia Naturaletik  
Mitologiara, Lidia, eta esadan ez ote hintzen  
inoiz lehenago lamia izan.

Lurra haragia lez ikaraz  
jo dezagun Mitologiatik Geologiara  
esadan su hau gura duena  
zain meheenean kanpora egin  
ez ote den kosmosaren magmaren isuria.



Ene, Lidia, errepasa dezagun  
espeziearen Historia Soziala  
esadan elkarrengandik erauzi ezin hau  
ez ote den ugaztun huts izan gineneko  
gau luzeak utzi digun izuaren izua.

Eta azkenean mintza gaitzen  
teknologia berriez  
errepasa ezan telefono-agenda  
eta esadan, Lidia, noiz garatekeen berrero  
elkarrekin ikasten segitzeko eran.

---

# MIRARIA

Argiz kristalduriko harriak:  
neuk gorde ohi nituen  
zure eskuetan hiltzen diren  
txori azulen begiak.

Eta argizko argiaren argiak:  
itsasoz beteak ziren,  
ene gogo zabalean uger  
(izurde leunak lez)  
zure niniak.

Ze, piztiak lotan eder,  
neuk jagon ohi nuen  
zure ahoko suge eztia.

Miraria.

Enea izaten zen  
hurrengo orgasmoko izerdia.

---

# IPUINETAKOA

Zapata bustiak kendu barik  
halaxe etorri ohi zinen

Cinderella

printze zitalen konpainiatik:  
gau-zuloetako dantzaldiak amaituta  
hamabiak aspaldi jota

umezurtz

atean deika.

Ilean euri fin izandakoaren kea  
birikietan belarraren errea  
irina sudur errotetan ehotu  
eldarnioz begi ikatz ederrak  
odolean alkoholaren gardena  
hartzetan nerabe galduaren barrea:  
ostatu eskatzen zenidan

Cincenta

psiko-alkimia guztien jabea.

Rimbaud Parisen bezain hordi  
nire gorputzean galtzen zinen

Cendrillon

labirintoan hegoaren bila

etsipenez

erruduntasun barik nire isuria

adatsean azalean denean

halaxe hartzen zintuen loak

semenaz ase

ezin bestela

Cenerentola.

Hordien Ontzia izaretan topaturik

nabigazioari ekiten zenion

Cenicienta

eta munduko ipuinetako mamuak

etorri bide zitzaizkizun

ozen egiten zenien-eta berba

lo-edo

endelegatzen ez nituenak esanez

zure adats eder pre-rafaelistak

nire larruazalean laku ilunarena

egiten zuelarik

oi alkimiaren maistra.

Erdi itzarrik eta jagi orduko

gaueko labirintoaren atea bilatzen zenuen  
berriro nire larruazalean  
eta ni zure lakuko ur ilunetatik irten ezinik  
plazerez irato ohi ninduzun.

Zapata bustiak ordurako lehorturik  
gosaltzeko ezer hartu barik abiatzen zinen  
belar hordigarriaren kea berriro birikietara bidean  
izaretan errauts fina utzita  
eta errautsetan galduta

tanga

lehoinabar larruaren airekoa gehienetan

Errauskine

Cinderella

Cincenta

Cendrillon

Cenerentola

Cenicienta

ipuinetakoa.

---

# IRAILA ZEN

C.ri

Hondartzarako bidearen ertzetan sasiak  
ia dardaraz ziren itsasoko haize ahulaz,  
eta zuk masustak batzeari ekin zenion.  
Kaobaz tindaturik, oskorri zenuen adatsa.

Hordi, goi-gorengo adarretakoak nahirik,  
halaxe, eusteko eskaini zenidan gerri aldea;  
bat-batean berriro ume bihurtu denaren  
istant eternal bateko zoriona zen zurea.

Aldaketan nasai prakak, ziloa agerian,  
orkatiletan gora luze beharturik bernak,  
titiburuek ere fruitu erneak ziruditen  
kamiseta zuri arin haren azpian tente.

Iraila zen, eta bion haragia hain geurea,  
botoi bat askatuz aldarrikatu nituen  
ezpainak, gerria, ziloa, zure masustak,  
eta esan han behean ohantze zela harea.

---

# ERRETZEARI UTZI

Erretzeari utzi behar diot holako egunen batean zure suteetan erretzeari esan nahi dut, izarek gero izerdi hotza eragiten baitidate, ospitaleko pasilloan ebakuntzaren baten zain itxaroten banengo legez.

Ez zaitut maite-eta, badakizu, maite ez zaitudala esatea, erretzeari, tabakoa erretzeari nahi dut esan, hori esatea, ez zaitut maite, tabakoari uztea baino askoz gaitzagoa da, gaitza, maite zaitut lehenengoz esatea baino askoz ere gaitzagoa, malkoak eta ez dira-eta izango maite zaitut lehenengoz esatean izan zirenak.

Ez zaitut maite, gero zure besoetan erretzen banaiz ere.

Tabakoa erretzeari utzi beharko diot ba, ea ausartzen naizen ez zaitut maite esaten eta zure besoetan erretzeari uzten diodan, ez daitezten izarak gero nire izerdi hotzaz

busti, ez dezazun esan, zer duzu, maitea, eta ezer  
ez, nik,  
gauari aurre egiteko zigarroa isiotzen dudan aldi  
berean.

Erretzeari utzi beharko zenioke, diostazu orduan eta  
bai  
erantzun nik, esan beharrean, bai, erretzeari utziko  
diot,

ez zaitut

maite,  
larruaren errearen ostean  
ospitaleko pasilloan ebakuntzaren zain banengo  
legez  
sentitzen naiz. Ez dakit ulertuko zenukeen suaren  
ondoko  
nire izerdi hotza. Zelan ba, maitea, erretzeari utzi.



---

# ESAIEZU ERLEEI

Eta zer diostazu erleez Marta erregina  
ala Ana zara? emango al diezu ba nire  
heriotzaren berri eta esan ene! labirinto  
honetan galdu nintzela ez nuela jakin  
bihotzeko neure erleak aske askatzen  
nora jo erakuts ziezadaten Marta guria  
ala Itziar zara? esaiezu ezta ez zidatela  
zeuen begiek baino ekoitzi eta esaiezu  
zeuen sagarrez gozatu nuena Marta gorria  
ala Alizia zara? esan ez nuela jakin zeuen  
erle bihotzak legez beti hegoa hegoan hegan  
egiten galdu egiten nintzela Marta enea  
ala Elena zara? beti akordatu izan naizela  
iraganeko sagarrez eta guztiak oi gozo  
gozoak topatu nituela esaiezu Marta bai  
ala Lidia zara? esaiezu nor zaren ere erleei  
esan labirintoan galdu zena hil egin dela  
eta harentzat denak Graziana izan zaretela.

# SAGAR LAZTANAK

Anai-arreba humanook  
gure ostean izango zaretenok  
ez gugatik bihotz gogorrez egin ok.

FRANÇOIS VILLON

1461

---

# LAINO

**M**aite zaitut, kalamu-ke  
epel ene baitan laino  
azulezko laztan zoro.

Maite zaitut, libre eta aske  
zainetan erreka bila  
konortetik noala ihes.

---

# UGERTUKO DA TITANIOA

**M**olekula-egitura demonioa:  
burdina ugertu ohi den legez  
—egon egotearen egote hutsez—  
urdinduko da inoiz titanioa.

(ugertuko da titanioa, Graziana,  
amoniteak desagertu ziren eran)

Ordurako lekutan gu eta jainkoa,  
nor gogoratuko da gure ametsez,  
noizbait izan ote garen ala ez,  
esateko Izan ziren!, horra gakoa.

(itsasoa hor da ehun milioi urtean,  
geu gara ba amoniteak izan zirena)

Tartean gorputzek duten distira,  
argiak dakarren bizi-kemena,  
poza, grina, gugan bizirik dira.

(holaxe da orain biribil uzkia  
behialako amonitearen irudira)

Berriz ezin izango orain garena,  
lot gaitezen elkarren altzo eztira,  
ez gara-eta metalen ugazabena.

(haragiaren malgua, hara, begira  
hor gorderik dena, zinez da guria)

---

# USAINAK

Gomuten bidea dira usainak, ama.  
Aholan jatortaz amumarenak  
soloan barrena zintz eta zintz;  
kresalaren altzoan barriz  
dantzan dabilz umetako olgetenak datoz.

Orduan ez nekiana  
hil egingo zirana  
amuma eta umea.

Usainak, ama, gomuten bidea dira.  
Aholan jatortaz portuko eguzkitan  
arrain fabrikea, gasolenea, osabea  
eta katu kaleko gernuetan igartea  
mundua misterio zala artetan.

Orduan ez nekiana  
fabrikea itxiko ebena  
hil egingo zinana

Ama, usainak, gomuten bidea dira.  
Aholan jatortaz erropak eskeikera  
neure eskuetan orduko zeureak;  
beti edo ia beti lixibearena  
behin edo behin amodioaren isuriena.

Orduan ez nekiana  
eskuetako usainatoko batzuk  
aittaren haziarenak zureakaz batera zirana.

Ama, gomuten bidea dira usainak.  
Aholan ba ezin dot plantxan egin  
lurrinak zure akordua ekarri barik;  
negarra etorten jat lixibea usaindueran  
eta amodioaren ostean be batzutan, ama.

---

# ZEUON ITZALAK

Euriari sokaren bat hautsi zaio  
geure teilatuan, amama!  
Badakite portuko katuek eurek be.  
Alona eta batelen azpian dagoz  
buztana bizarretan gorderik.

Umezurtz zaharrak gara.

Hauts bihurturik malkoak  
ez datozkigu jada begietara,  
ez bada be, lehor, ahora.  
Aspaldion apoak ez dira kro!  
itzuli portuko ziloetara.

Mutua da mundua gure belarrietan.

Haitzek ba iraila eta hego haizeak,  
masustak eta itsaso bareak dituzte  
neguko euripean, geuk lez, amets.  
Artean zeuon itzalek dardarazten dituzte  
gure bihotzak eta basapikondoak.

Tenplua da oraindino portua.



---

# HIRI SETIATUA

**A**ntzinako hiri gotor haietako  
edozein bezalako dirudit, setiaturik.

Zainetako murailetan izan beharreko  
balizko ia sei milioi burdinazko gerlarietarik  
—*hematie* deritze orain, lehen *globulo gorri*—  
hirurehun milaren batek desertatu egin du,  
nork daki nora. Zainetako murailetatik, bai.

Murailetan eurretan bertan behera utzi duten  
txatarrak —*ferritina* deritzo, burdinari lotua baita—  
erruz gaintitzen ei du edonoren odolari  
kabitzen zaiona. Gainera, VCM eta HCM  
izeneko legioetan —arrotzen hizkuntzan  
mintzo dira horiek, besteak legetxe— itzelak jazo  
dira.

Zorionez, CHCM, RDW eta VPM izenekoetan  
antza dena dabil bere ohikoan, oi legioak!

Leukozitoen artean ere bere eragina izan du  
urteetako setioak; hala da ze,

segmentatuen artean batzuk ments  
eta linfozitoen ilaretan zenbait soberan  
dira, hor nonbait. Eta horrela bada,  
murailak ganoraz defendatzerik ez, otoi!

Badiot, zainetako murailak setiaturik, hiriko  
esparruan ere ez da besterik anabasa baino.

Behinolako egun loriotsuetan  
guztion poza izaten zen gai gozoa  
—artean *sukrea* zeritzoten, gaur oster  
*glukosa*— erruz zabaldu da,  
irudi duelarik erle mendekatien izurria dela  
hainbestekoa eta hain ahulgarria baita.

Eta zer esan gure goseteetan aringarri  
izaten genituen koipeez —*triglizeridoez*—  
ez bada ere esparruan bizi diren besteen  
oinei labaingarri eta arrisku zaizkiola eta  
hiriaren beraren bihotzari mehatxu  
egiten diotela besterik? Deus ez!

Anabasak anabasa, badira gero esparruan  
zer dela-eta hain ugaldurik ditudan ez dakidan

beste jende batzuk, hala nola  
GT-Gamma eta ALT/GPTV giltza-izen  
arrotzen azpian ezkutatuak bide direnak.  
Halaxe bada, harrigarri ote zaio inori  
genuari ere erneguz begiraten diodala  
esaten badut? Horretan ere aieruak omen.

Ez da bakerik, ez, orain naizen hiri setiatuan;  
ez murailetan, eta ez esparruan.

Setioaren berri dakarkidan gutuna  
luzatu didalarik, hiria utzirik mortura,  
mortura!, egin dezadala aholkatu dit  
ene mediku andereak, Markina aldeko  
euskara txit garbian. Han, mortuan,  
antzinako hiririk berreraikitzerik balego moduan.

Bada, gutuna tolestu barik atxiki dut  
bestela eginez gero hiri setiatua betiko  
gal zitekeelakoan edo. Kalera bidean  
berriro begiratu dut izkribu sakratua:  
gorriz dakartza ohiko datuak, formulakoak;  
beltzez, ostera, niri beste inori ez dagozkionak.

Goizeko hozkirrian kresala usaindurik  
autoan laga dut gutuna, tolestu barik!,  
eta gero ene oinek portura eroan nazaten  
utzi dut, eta halaxe ikusi dut itsaso zabala  
bere uztai engainagarriaz estaturik  
eta halaxe egin dut amets hiri setiatutik  
egin nezakeela halako batean, nahita, alde.

---

# AMOREZKO HARAGIA

Landareak haziko dira, laztana,  
metalezko sagarraren ugerretan,  
eta argiak berak ere  
beste DNA bat izango du  
oraingoa argiarena  
ez dena.

(argi honen DNA:  
kresala, goiz-lurruna  
gehi basapikondoen  
itzal luze berdea)

horrexegatik itzuli naiz, laztana,  
aramuen eremura  
sare singleon perfekziora:  
amaraunaren erdi-erdia  
beti da argi-begian,  
senaren agindura bere zeregina.

(itsaspean  
sasoian dira txibiak;  
haitzetan  
fosil zahar dira amoniteak)

sasoi honexetan itzuli naiz, laztana,  
lan isilen naziora  
pinudiko sagarrondo makurtuetara  
molekulen arkitekturaz  
hormonen ingeniartzaz  
mira barik ikastera.

(feromonetan  
estigmak ditudalarik  
denboraren igaroaz  
gogoetan)

eta, hara miraria,  
erdi-erdian jotzen dion argia da  
amarauneko hariak  
ikusezin bilakarazten dituen.

(molekulen egitura hotza,  
planetaren ostean ere  
iraun egingo duena,  
ene laztana, ene bihotza)

---

# ITSASOAREN AURREAN

Orduan esaiezue erleei: Omar Nabarro hil da!  
Eta esaiezue harekin batera hil direla  
Jimenez eta haren beste heteronimoak,  
eskola urteetako goitzenak, etxekoen  
izen sekretuak, soldadutzakoak eta beste,  
eta horiek guztiak edonork erabiltzeko  
libre direla: lehen izan diren bezala orain.

Eta erlerik ez bada esaiezue  
aramuei, ingumei, eltxoei,  
pinpirinei, euliei izan ezik  
hegan doan intsektu orori,  
baita airean nekez doazen  
koleopteroei eurei ere:  
Omar Nabarro hil da:  
egizue hegan, eta albistea eroan.

Eta heriotza ortzegunez bada,  
gogora ekarri Cesar Vallejo,  
batik bat euria ari badu;  
eta bestela bada, martitzenez edo bada,



begira, begira egizue gora  
gauerdian, asturu gorria, Martitz,  
han ote den, eta egizue negar  
munduan isurarazi den hainbeste odol-  
eta gezur-olderengatik. Asturu gorriak  
ez du horretan zerikusirik izan.

Esaeizue ba, edozein egun izanda ere;  
gero ehorts nazazue itsasoaren aurrean,  
Robert Louis Stevenson bezala,  
jakinik nire bihotza aspaldi datzala  
lurperaturik Wounded Knee-n;  
jar nazazue oinak iparrera burua hegoaldera,  
mokozabalen eta lertxunen igaroaldien  
ardatz zehatzaren gainean.  
Ez ezazue nigaz kerik atera,  
keak erleak eta besteak ere uxatuko lituzke-eta:

haragi bizirik errearen keak,  
zeuon haragi bizi errearen keak erleei,  
haragiaren keak erleei, Graziana,  
eragotzi egin ote zien  
halaxe eman zizueten heriotzaren berri izatea,  
eragotzi ote zien, Graziana?

Kea izan ote zen ekarri zizuena  
heriotzaren tenorean negarra,  
Graziana, ekarri begietara,  
eta betiko bertan lehortuta utzi?  
Kea, Graziana?

Ez ezazue nigaz kerik atera, ba,  
eta ehortz nazazue kaioen hegalezko  
ortzi-sabaiaren azpian, Paul Valery gogoan;  
amilotxen eta buztanikara horien, txonta  
eta birigarroen, erleen belartzako zokoan, han,  
indio egin ninduten ama eta amamaren  
ezerez gardenaren alboan, mestizo  
bihurtu ninduen aitaren  
isiltasunaren belarri-belarrian,  
Kantauri Natural History Museum horretan,  
nagoen hor, espeziea ere hortxe den bitartean  
amoniteek izan zuten amaieraren esperoan.

---

# BASAPIKONDO KRESALTSUAK

Inoiz fruitu ondurik ematen ez duten  
itsasertzeko basapikondo kresaltsuetan  
ez dago kasik urtarorik, ezta ere ia-ia sasoirik.  
Neguan hostoak galdurik ere eder  
labarretako eremu ezinezkoetan beti  
eurei esker dira haitzik gaitzenak  
berdez janzten, eurok iluntzen dute  
arrantzaleak zelatzen duen bazterra  
txibien sasoa itzultzen den aldiro.